



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2018KO IRAILAREN 28AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2018ko irailaren 27an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Bakartxo Ripalda, M^a mar Ansorena eta Xabier Azpiroz.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

Abuztuaren 28ko akta aho batez onartzen dute bildutakoek.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

- 2018/63 abuztuaren 28koa Jose Joaquin Miqueo Arraratsi zuzendua EIOZren behin betiko likidazioa onartuz Berueteko 11. Poligonoko 58. Lursaileko etxebizitzaren teilatua eraberritzeko aurkeztutako obra bukaeraren arabera.
- 2108/64 abuztuaren 30ekoa Niebla Informatika enpresari zuzendua onartuz Niebla Informatika enpresak aurkeztutako suebaki sistema jartzeko aurrekontua, 490 eurokoa (BEZ barne).
- 2018/65 alkate ebazpena abuztuaren 30eko Valeriano Aldaz Tellecheari zuzendua onartuz egindako eskaera, 2017ko erreziboak 2 zatitan ordaintzeko, 118,23 abuztuan eta 118,24 irailean.
- 2018/66 alkate ebazpena irailaren 4koa Onartzea Basaburuko haur eskolako hezitzaile lanpostua betetzeko onartu eta baztertutako behin behineko zerrenda onartuz.
- 2018/67 alkate ebazpena irailaren 8koa Mikel Alsua Aristegiri zuzendua onartuz aurkeztutako aurrekontua, udaleko kalefakzio sistema programatzekoa jartzeko eta erradiadoretan termostato buruak, 508,20 eurokoa.

- 2018/68 alkate ebazpena irailaren 7koa Onartzea Basaburuko haur eskolako zuzendari lanpostua betetzeko onartu eta baztertutako behin behineko zerrenda onartuz.
- 2018/69 alkate ebazpena irailaren 12koa Maite Uterga Doizi zuzendua onartuz Maite Uterga Doizek egindako eskaera Aizarotzko herrikoetxeko gela txikia erabiltzeko, irailaren 10etik abendua arte astelehenetan 18:00 etatik 20:00etara online ikastaro bat egiteko.
- 2018/70 alkate ebazpena irailaren 13koa Izaskun Insaustiri zuzendua bamera emanaz eskolako 3. eta 4. Mailakoen gela erabiltzeko 2018-2019 ikasturtean ostegunetan 16:45etatik 17:45etara ingelera klaseak emateko.
- 2018/71 alkate ebazpena irailaren 26koa Miguel Galarza Etayori zuzendua ez onartuz egindako eskaera Itsasoko 4. Poligonoko 416. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua eta fatxadak berritzeko egindako lanetarako zaharberritzerako eta eraikuntzarako diru laguntza arautzen duen ordenantzaren 3.2 artikulua araberaz ez dira diru laguntzan sartzen " eskatzailearen ohiko bizitzarekin lotuta ez dauden obrak."
- 2018/72 alkate ebazpena irailaren 26koa M^a Teresa Elizalde Insaustiri zuzendua ez onartzea M^a Teresa Elizalde Insaustik egindako zaharberritzeko dirulaguntza eskaera Arraratsko 14.. Poligonoko 28. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua berritzeko obrarako egindako lanetarako, zaharberritzerako eta eraikuntzarako dirulaguntza arautzen duen ordenantzaren 3.2 artikulua araberaz ez dira dirulaguntzan sartzen " eskatzailearen ohiko bizitzarekin lotuta ez dauden obrak.

Bildutakoek jakintzat ematen dituzte alkate ebazpenak.

3.- Fibra optikoaren azpiegitura egikaritzeko proiektua. PRD diru laguntza.

Alkateak azaltzen du PDR dirulaguntza eskatzeko deialdi berria argitaratu dela eta aurreko urtean onartu ez zuten proiektua berriro aurkeztea proposatu zen Cedernatik. Aipatutako proiektuak Udabe Beramendi, Igoa eta Orokieta Erbitira fibraren azpiegitura egikaritzea sartu zen eta horren gastua 69.500 euro BEZ kanpo. Azaroaren 19an bukatzen da epea diru laguntza eskatzeko.

Hau ikusita beste kontzejuei proiektuan sartzeko aukera ematea eztabaidatzen da eta hortaz horrek proiektu aldaketa eskatuko lukenez, gaia hurrengo batzar batean aztertzea erabaki dute bildutakoek.

4.- Fibra optikoaren azpiegituraren erabileraren zesioa.

Alkateak aipatzen du elkarte merkantila sortua dagoenez hurrengo pausoa udalarenak diren fibra optikoaren azpiegituraren erabilera uztea dela eta ondoren operadore bezala alta ematea eta elkarte merkantilak hornitzaileekin zerbitzua kudeatzea.

Gaiaren inguruan Bidera aholkularitzak egindako txostena irakurtzen da. Bertan adierazten da ez dagoela oztopo juridikorik erabilera elkarte merkantilaren esku uzteko eta horrengatik ere errenta kanona eskatzeko.

Bildutakoek aho batez ondoko erabakia hartzen dute:

- **Itsaso, Gartzaron eta Aizarotzko fibra optikoaren azpiegitura Basanet Basaburua S.L Elkarte Merkantilaren esku uztea, honek azpiegitura kudeatu**

dezan. **Basanet Basaburua S.L Elkarte Merkantilari kudeaketa enkomienda egitea onartzen da fibra optikoaren azpiegitura erabiltzeko.**

- **Kudeaketa enkomienda honen epea elkarte merkantilak zerbitzua ematen duen artekoa izanen da. Zerbitzua eteten denean udalak berreskuratuko da azpiegituren erabilera.**
- **Azpiegituraren kudeaketa enkomienda honengatik Basaburua Basanet S.L elkarte merkantilak, udalari 2018. urtean 1.000 euro BEZ kanpoko errenta kanona ordainduko dio. Aipatutako errenta kanon hau 2019tik aurrera berrikusiko da eta zehaztuko da 2019. urterako eta ondorengo urteetarako.**

5.- Langileen soldata igoera.

Alkateak adierazten du Nafar Gobernuak onartu zuela Nafarroako Administrazioako langileendako soldata igoera, abuztuko nominatik aurrera %1.5eko igoera (2018 kourtarrilaren 1eko aintzinasuna kontutan hartuz) eta iraileko nominan %0.25eko igoera, osotara irailetik aurrera igoera %1.75koa izanen da. Idazkariak aipatzen du uztailearen 25eko akordio bidez Nafar Gobernuak erabaki zuela %1.5 igotzea eta abuztuaren 22an horri %0.25 igotzea.

Bildutakoek aho batez ondoko erabakia hartzen dute:

- **Basaburuko Udaleko langileei Nafarroako Administrazioako langileei onartutako soldata igoera onartzea, %1.5ekoa abuztuko nominatik aurrera, 2018ko urtarrilaren 1eko atzerapenekin eta %0.25ekoa iraileko nominatik aurrera.**
- **Akordio hau Bidera Aholkularitza enpresara helaraztea.**

Gai ordenean badago beste gai bat aztertzeko eta bildutakoek gai ordenean sartzeko baieztoko bozka egiten duten eta aho batez gai ordenean sartzen da.

Banda zabalaren azpiegituraren obra. Tokiko Azpiegitura Plana 2017-2109.

Alkateak aipatzen du aurreko batzarrean onartu zela Nasertic-ek bidalitako azken proiektua eta finantzaketa plana , orain proiektu horri beste aldaketa bat sartu behar dela adierazten dute Toki Administrazioako Departamentutik, Euroveloko obraren zatiaren finantzaketa udalak bere gain hartzeko, horrek aurrekontua garestitzen du gehiago.

2018ko aurrekontua onartu zenean ez ziren kontutan hartu proiektuaren aldaketa hauek eta horrekin lotuta aurrikuspenaren haunditzea, horregatik guztiagatik, bildutakoak ondoko erabakia hartzen dute:

- **Toki Administrazioako Departamentura eskatzea Basaburuan banda zabalaren azpiegitura egiteko obra 2019. urteko aurrekontutan sartzea eskatzea udalak 2018ko**

aurrekontuan ez zuelako aurreikusi proiektuaren aldaketa eta gastua haunditzea eta hortaz ez dauka gaitasun ekonomikori proiektu horri aurre egiteko.

- Erabaki hau Tokik Administrazioiko Departamentura helaraztea eskatuz proiektua egikaritzeko luzapena 2019. urterako.

6.-Mozioak.

Antsoaingo festetan gertatutakoaren inguruko mozioa, ondoren transkribatzen dena alkateak irakurtzen du:

“ANTSOAINGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Jaiak direla eta gure herriko Rafael Alberti plazan jarritako esku gorri erraldoiaren aurkako eraso irmoki salatu nahi du Antsoaingo Udalak. Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin elkar lanean, Berdintasun Arloak ditugun hainbat Tokiko Erakundek egiten dugun lanaren zati bat da esku hau, gure herriari Iruñeko Udalak utzitakoa.

Erasotua izan den eskuak Nafarroako jendartearen emakumeon indarkeriaren kontrako konpromisoa ordezkatzten du, eta Udalaren ustez, nahita egindako eta aurrez pentsatutako eraso matxista da. Horrexegatik, Udalbatzako udal talde guztiek onartutako eraso sexisten aurkako protokoloa martxan jarri da.

Kezkaz begiratzen diegu horrelako gertakari bortitzei mugimendu feministak eta jendarteak bere osotasunean egindako lorpenenen aurrean erantzuten duen egitura patriarkal batean gertatzen baitira. Lorpen hauek benetan bermatzen dituzte emakumeon eskubide zibilak eta jendarte osoaren onurako dira, izan ere, giza eskubideen garapen handiagoa ahalbidetzen dute. Hori dela eta, gizon heldu eta gazteei dei berezia egiten diegu lorpen hauen parte izan daitezen eta ez ditzaten jarrera eta eraso matxistak babestu; era berean, emakume heldu eta gazteak animatu nahi ditugu edozein erasoren aurrean erantzutera eta beste pertsonen laguntza bilatzera.

Era berean adierazi nahi dugu, gertakari honek berdintasunaren alde eta bortizkeria matxistaren kontrako lanean jarraitzeko beharra berresten duela, uste baitugu, hau dela emakume guztion giza eskubideen bermea lortzeko bide bakarra, gure herrian eta baita munduan ere.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute mozioa eta Antsoaingo udal eta herritarrei adierazten diete Basaburuko Udala bat egiten duela onartu dituzten aldarrikapenekin. Erabaki hau Antsoaingo Udalera helaraztea onartzen dute bildutakoek ere aho batez.

7.- Batzordeen informazioa.

-Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Ultzamako Gizarte Mankomunitateko bileran, 2017ko kontuak onartu ziren behin betikoz, eta onartu zen urritik aurrera gizarte langilearekin batera lanaldi erdian beste gizarte langile bat kontratatzea, dagoen lan karga arintzeko.

Ikasturte berrira begira programatu dituzten ikastaroen berri eman zen eta aipatu era berean programatu baino lehen ongi egonen zela bilera bat egitea zonaldeko herri eta politikariekin aztertzeko jendearen interesak eta horren arabera programa prestatu.

-Kirol Batzordea. Bakartxo Ripaldak ematen du informazioa.

Ikasturte berrirako plangintza prestatu da. Azaroan esku pilora txapelketaren finalak burutuko dira bai neska bai mutilen atalean.

-Euskara Batzordea. Esther Lakastak ematen du informazioa.

Euskaraldirako ekintzak prestatzen ari dira. Euskaraldia hasiko den eguna arte izena emate prozesua irekiko da. Bestetik euskara ikasteko matrikula abian izanik, kanpainari bultzada emanen zaio jendea animatzeko, Nafar Gobernuak dirulaguntzen inguruko informazioa zabalduz.

- Garapen Batzordea. Xabier Azpirozek ematen du informazioa.

Aizarotzko baratzetan 1000 m²ko eremua libre gelditu da eta urte bukaerarako enkantean atera behar da, aurreko baldintza berdinetan.

- Komunikazio Batzordea. Xabier Azpirozek ematen du informazioa.

Banda zabalaren proiektua, Nafar Gobernuak onartutako 2017-2019 Tokiko Azpiegitura Planaren barruan dagoena, 2019. urtean egikaritzea eskatuko da (2018. urtean egiteko aurreikusitakoa zuen Nafar Gobernuak).

- Berdintasun Batzordea. Esther Lakastak ematen du informazioa.

Ultzamako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak eta udalak teknologia berriak lantzeko ikastaroa egingen du (tablet, mugikorrak...). 55 urtetik gorako emakumeei zuzendua dago.

8.- Informazio orokorra.

- Hezkuntza Departamentua. Eskolako funtzionamendu orokorretarako dirulaguntzaren onespena 2018. Urterako, 22.054,02 eurokoa.

- Hezkuntza Departamentua. 2017-2018 ikasturterako haur eskolarako funtzionamendurako onartutako dirulaguntza 42.166 eurokoa.

9.-Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:20 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.